



## 1. Haur Literaturaren Txokoa

Irailean irakasleei zuzendutako jardunaldiak egin ziren Bularretik Mintzora egitasmoa martxan dagoen herrietan eta bide berri bati ekin genion: "Literatur kompetentzia" garatzeko, txikitatik esperientzia literario egokiak metatzeaz aritu ginen. Horretarako, kalitatezko liburuen inguruko hausnarketak, libertimendu bideak edota sentazioen adierazpideak burutzeko tresna egokiak aztertu genituen. Oraingoan **hiru proposamen** ekarri dizkizuegu. Gozatzea espero dugu eta zuen ekarpenak gure blogean zintzilikatzea. Hilabete barru... gehiago. Zerrenda osatzen joango gara [www.bularretikmintzora.org](http://www.bularretikmintzora.org) web guneko [bibliografia](#) atalean eta Bularretik Mintzora [blogean](#), Haur Literaturaren Txokoa izeneko atalean.

1. [Piztiak bizirik diren lekuan](#) (Sendak, M. Kalandraka, 2000-2011)
2. [Jonas eta hozkailu beldurtia](#) (Igerabide, J.K., Valverde Mikel. Aizkorri, 1998)
3. [Handitzen naizenean txakurra izan nahi dut](#) (A. Schneider. Tarttalo, 2009)

## 2. Egitasmoak martxan

Iaz hasi ginen Bilboko eta Arrigorriagako La Peña-Abusu auzoko osasun zentroan lanean. Haren berri eman genizuen apirileko buletinaren. Dagoeneko, esperientzia berezi hau martxan dago eta pediatria zerbitzuko langileak hasi dira irakurketarako lehen irizpideak eman eta gurasoak bibliotekarako bidean jartzen. Pediatriari egindako bisitaldian gomendioren bat, liburutxo bat, eta adin tarte bakoitzeko "irakurketa errezeta" bat hartuko dute gurasoek. Itxaron gelan **Bularretik Mintzorari** buruzko informazioa eta biblioteka koxkor bat ere badituzte.

## 3. Hausnarketa gunea

Dagoeneko, banatu dira Bularretik Mintzora egitasmoaren ebaluaziorako ikasturte honetako galdekizunak. Gure aurreikuspenen arabera, guztira, 15 herri (6 Gipuzkoan, 5 Bizkaian eta 4 Araban), 47 ikastetxe, 330 irakasle eta 6.000 familia ari dira egitasmoan parte hartzen. Liburuz betetako 140 maleta dabilta tokian tokiko liburategietatik, etxeetara eta handik ikastetxeetara bueltara. Horrez gain, *Bularretik Mintzora* CD-liburuaren 1.700 ale banatuko dira 3 urteko haurren gurasoen artean, eta *Sasi Guztiaren Gaietia* CD-liburuaren 1.650 ale 5 urteko haurren gurasoen artean.

## 4. Ongi pasatzeko!

Liburuak iragartzeko, nahiz irakurketa sustatzeko teknologia berrien eremuan asko zabaldu den promozio bide berria BOOKTRAILERRA da: liburu bat iragartzeko sortutako bideo muntaia, filmen trailerrak egiteko erabiltzen diren narrazio teknika berdintsuak erabiliz egin ohi dena. GALTZAGORRI Elkartea ere hasia da argitaratzen dituen liburuen booktrailerrak sortzen eta Klis-klasikoak liburu-sortako argitalpen berriaren booktrailerra duzu horren adibide: [Amattoren usia booktrailerra](#). Gozatu bideoaz eta [liburuaz](#). 9-10 urte bitarteko haurrek euren kabuz edota heldu batek txikiagoei irakurtzeko ipuin-liburu ederra da. Mayi Ariztiak idatzitako jatorrizko testuak Patxi Zubizarretak egokitu ditu eta Maite Gurrutzagak ilustratu liburuak. Dagoeneko salgai dago liburu-dendetan nahiz argitaletxearen [web gunean](#).